

<i>Berdintasun zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2019-04-11

Lekua: RKE

Orduetgia: 17:00etatik 18:30era

Bertaratuak:

EH Bildu : Arantza Gutierrez

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

ELA: Elvira Lemona Díaz

Berritzegunea: Rosario Franco Soria

Eskuz-esku: Isabel Perez Ares

Gizatiar: Begoña Bas Fernandez

Lehendakaritza: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaria: Bego García Martínez

Bertaratu ez direnak:

Emakumeon Ahotza

Bilgune Feminista

Roda

Udal Talde Sozialista

Talde Popularra

Gai zerrenda

- Aurreko akta onestea
- Martxoaren 8a. Balorazioa
- Informazio nagusia
- Galde-eskeak

Aurreko akta onestea

Aho batez onartu da aurreko bilerako akta.

Martxoaren 8a. Balorazioa

Berdintasuneko teknikariak Coral Herrerak RKEn 2019ko urtarrilaren 27an emandako "Indarkeria matxista eta maitasun erromantikoa" izeneko hitzaldiaren berri eman du.

Guztira 100 pertsona baino gehiago bertaratu ziren, eta iritziak oso positiboak izan ziren, bai hitzaldiaren edukiarengatik, bai Getxon Coral Herrera zuzenean entzuteko egindako esfortzuarengatik.

Bilgune Feminista erakundeak saio honetan parte hartu ez bazuen ere, agenda-arazoengatik, Uxune Iriondo bere ordezkariak idatzia bidali zion Berdintasun Arloari, besteak beste Coralen hitzaldiaren balorazioa azalduz. Bilgunerentzat hitzaldia oso positiboa izan zen, Coralek jorratutako gaiak bizi osoan baldintzatu eta eragiten gaituztelako. Pena izan zen jende gehiago ez bertaratzea, eta beste aukera batzuetarako proposamen gisa, mota honetako jardunaldiak, gero, udalerriko beste komunikabide batzuetan zabaltzea proposatu du.

M8ren programazioaren barruan, bi erakusketa egin ziren RKEn:

- Otsailaren 18tik martxoaren 4ra, "[Rock and Roses](#)" [argazki-erakusketa](#). Argazki-erakusketa honetan, emakumeek rockean duten irudia nabarmentzen da. Unai Endemañorena da, kritikari musikala.
- Martxoaren 4tik 17ra "[El burdel de la Lola](#)" [erakusketa](#). Silvia Ayerrak, Argazki Artistiko eta arte plastikoetako goi-mailako teknikariak, egindako argazki-egunkaria da.

Ezin da zehaztu zenbat jende etorri zen, RKEk jasotzen ez duen datua delako.

Informazio nagusia

- Dirulaguntzak. Berdintasuneko teknikariak jakinarazi du 2 hileko baja dela eta, 2018ko dirulaguntzen justifikazioen egiaztatzea atzeratzen ari dela. 2019rako deialdia ere atzeratuko da; maiatz hasieran egingo da.

Deialdiaren datei dagokienez, Bilgunek eta batzordeak berak datak aurreratzea proposatu dute, oro har, elkarteek uda baino zertxobait lehenago jasotzen dituztelako dirulaguntzak, beraz, jardueren antolaketa zailtzen du. Horren inguruan, deialdia justifikazioak egiaztatutakoan egiten dela erantzun da, eta hori egiteko azken eguna otsailaren 27a dela beti. Hala ere, gainerako elkarteekin adostea proposatu da.

- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna. Berdintasuneko teknikariak azaldu du Berdintasun Ministerioak 14.000 euro gutxi gorabehera eman diela, eta estatu-itunean bertan jasotzen diren neurriak garatzeko erabili behar direla: sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak egitea, biktimen arretarako udal zerbitzuak indartzea, tokiko profesionalen prestakuntza espezializatua eta abar.

Neurriak ekainaren 30 baino lehen egin behar dira, beraz, epe laburra dagoenez, jarduketa hauek proposatu dira:

- o Jai-batzordeak indarkeriaren arloan trebatzea.
 - o Ostalaritzako langileak indarkeriaren arloan trebatzea.
 - o Udaleko langileak indarkeriaren arloan trebatzea.
- Guk alderdiko ordezkariak gaur egun udaltzaina berdintasuna arloan jasotzen ari den prestakuntzari buruz galdetu du. Berdintasuneko zinegotziak dio ez duela datu zehatzik, baina badakiela nahitaezko prestakuntza dela udaltzain guztientzat, eta gaia indarkeria dela.

- Berdintasuneko teknikariak "Emakumeen ekarpena Getxoren historiari" izeneko bekaren deialdia zergatik geratu den esleitu gabe azaldu du. Epaimahaiak aho batez erabaki du beka esleitu gabe uztea, aurkeztutako proiektuek ez zituztelako betetzen beharrezko baldintzak, hala nola proiektuak zehaztea, helburuak egokitzea, erabilitako metodologia eta ikuspegi historikoa, Getxoren testuingurura egokitzea eta genero-ikuspegia.
- 2018ko Berdintasuneko kudeaketa-planaren ebaluazioa atzeratu da, berdintasuneko teknikariaren bajarengatik. Txostena egindakoa batzordeari jakinaraziko zaio.
- Berdintasuneko zinegotziak dio gaur dela legealdi honetako azken batzordea, azken osoko bilkura apirilaren 30ean delako. Bestalde, gizarte arloari urte hauetan egindako lana eskertu dio, zehazki laguntzeko eta parte hartzeko izan duen jarrerarengatik. Politikarien jarrera ere eskertu du.
- EHBilduko ordezkariak hurrengo legealdian ez dela batzordean egongo esanez agurtu du. Batzordean izan duen esperientzia interesgarria izan da, eta oso eroso sentitu da. Bere ustez, oso gai interesgarriak jorratu dira, ekarpenak egin dira eta erabaki garrantzitsuak hartu dira, hala nola protokoloa berrikustea. Berdintasuneko teknikariari bere ardura eta lana eskertu dizkio.
- Eskuz-eskuko ordezkariak Getxoko ahalduntze eskola nabarmendu du.

Galde-eskeak

Hurrengo batzordea irailean egingo da.